



TOLOSAKO
UDALA

**Tolosa
&Co**

**TOLOSAKO UDALAREN ETA TOLOSA&CO
MERKATARITZA, OSTALARITZA ETA
ZERBITZU ELKARTEAREN ARTEKO
LANKIDETZA HITZARMENA.**

Tolosako udaletxean, 2026ko maiatzaren 26an

ELKARTURIK

Alde batetik, Aitor Aguirresarobe Murgui, Tolosako Udaleko Turismo, Merkataritza eta Azokak Azpisaileko zinegotzi delegatua, idazkari Sara Berasategui Fuertesek lagunduta.

Eta bestetik, Jaione Ormazabal Azpiroz, Tolosa&Co elkarteko lehendakaria. Elkartearen egoitza soziala: Tolosako Pedro Tolosa, 2 kalea – Oriaburu Eraikina; IFKa: G75029116.

ESKU HARTZEN DUTE

Lehenengoak, Tolosako Udalaren izenean eta ordezkaritzan, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 21.1.f) artikulua xedaturikoaren arabera. Eskumen hori, Alkatetza delegazio dekretuaren bidez, arloko zinegotzi delegatuari dagokio.

Bigarrenak, Tolosa&Co elkartearen izenean eta ordezkaritzan, lehendakari gisa, 2025eko urtarrilaren 29ko batzar orokorraren erabakiari jarraiki.

Bi alderdiek elkarri aitortzen diote hitzarmen hau egiteko legezko gaitasuna, eta, horretarako, honako hau

AZALDU DUTE

I.- Entitateak egunean dituela zerga-betebehar guztiak eta Gizarte Segurantzarekikoak.

**CONVENIO DE COLABORACIÓN ENTRE EL
AYUNTAMIENTO DE TOLOSA Y LA
ASOCIACIÓN DE COMERCIO, HOSTELERÍA
Y SERVICIOS - TOLOSA&CO.**

En el Ayuntamiento de Tolosa, a 26 de marzo del 2026

REUNIDOS

De una parte, Aitor Aguirresarobe Murgui, concejal delegado del Subárea de Turismo, Comercio y Ferias del Ayuntamiento de Tolosa, asistido por Sara Berasategui Fuertes, secretaria del Ayuntamiento de Tolosa.

De otra parte, Jaione Ormazabal Azpiroz, presidenta de la asociación Tolosa&Co con domicilio social en la calle Pedro, Tolosa, 2 – Oriaburu Eraikina de Tolosa y CIF G75029116.

INTERVIENEN

El primero, en nombre y representación del Ayuntamiento de Tolosa, en virtud de lo dispuesto en el artículo 21.1.f) de la Ley 7/1985, de 2 de abril, Reguladora de las Bases del Régimen Local. Esta competencia corresponde, mediante decreto de delegación de Alcaldía, al concejal delegado del área.

La segunda, en nombre y representación de Tolosa&Co en su calidad de presidenta, en virtud de acuerdo de la asamblea general de 29 de enero de 2025.

Ambas partes se reconocen mutua y recíprocamente, capacidad legal necesaria para otorgar el presente Convenio, y a tal efecto.

EXPONEN

I.- Que la entidad se encuentra al corriente en el pago de todas las obligaciones tributarias y con la Seguridad Social.

ESKUa7437e37-e6ed-495d-8eab-15c899797b6a



TOLOSAKO
UDALA

**Tolosa
&Co**

II.- Erakundea ez dagoela Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 13. artikulua 2. eta 3. paragrafoetan dirulaguntzak lortzeko adierazitako debekuen kausen eraginpean.

III.- Bere estatutuen arabera, erakunde eskatzailearen xedea bat dator hitzarmen honen bidez emango den dirulaguntzaren xede eta helburuekin.

IV.- Tolosako Udalaren 2026rako udal-aurrekontuan 1100.481.10.431.00 partida jasotzen da, 42.000,00 eurokoa, erakunde eskatzaileari emandako dirulaguntza izendun gisa.

V.- Euskadiko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legeak, 17.1 artikuluan, udalerrien berezko eskumenen artean jasotzen ditu tokiko garapen ekonomiko eta soziala eta barne-merkataritzaren antolamendua eta kudeaketa.

VI.- Merkataritzak, zerbitzuak eta ostalaritzak funtsezko zeregina dute udalerriko enplegu eta garapen ekonomikoan, eta Tolosako Udalak sektore hori babestu nahi du, elkartegintza lagunduz erabakiak hartzeko partaidetza kolektiboko metodo gisa, eta, bereziki, Tolosa&Co, irabazi asmorik gabeko erakunde erreferentea baita udalerrian, merkataritza, zerbitzu eta ostalaritzako sektoreak biltzen eta ordezkatzeko dituen, sektore horretan udalerriko bakarra izateaz gain.

VII.- Hitzarmen hau Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren eta hura garatzen duen Erregelamendua onartzen duen uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuaren eta Tolosako Udalaren eta haren erakunde publikoen dirulaguntzei buruzko Ordenantza Orokorraren babesean ematen da.

II.- Que la entidad no se encuentra incurso en ninguna de las causas de prohibición para la obtención de subvenciones señaladas en los apartados 2 y 3 del artículo 13 de la Ley 38/2003 de 17 de noviembre, General de Subvenciones.

III.- Que de acuerdo con sus estatutos, el objeto de la entidad solicitante es acorde con la finalidad y objetivos para los que se solicita la subvención que da lugar al presente convenio.

IV.- Que en el presupuesto municipal del Ayuntamiento de Tolosa para el ejercicio 2026 se recoge la partida 1100.481.10.431.00 por importe de 42.000,00 euros, en concepto de subvención nominativa a la entidad solicitante.

V.- Que la Ley 2/2016, de 7 de abril, de Instituciones Locales de Euskadi, en su artículo 17.1 recoge entre las competencias propias de los municipios, el Desarrollo local económico y social y la ordenación y gestión del comercio interior.

VI.- El Comercio, servicio y la hostelería juegan un papel fundamental en el empleo y desarrollo económico de municipio, y el Ayuntamiento de Tolosa quiere apoyar este sector, apoyando el asociacionismo como método de participación colectivo para la toma de decisiones, y de forma especial a Tolosa&Co, como entidad referente sin ánimo de lucro del municipio que aglutina y representa en su conjunto a los sectores del comercio, servicios y hostelería, además de ser la única del municipio en dicho sector.

VII.- Que el presente Convenio se otorga al amparo de la Ley 40/2015, de 1 de octubre, de Régimen Jurídico del Sector Público, de la Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones y del Real Decreto 887/2006, de 21 de julio, por el que se aprueba el Reglamento que la desarrolla y de la Ordenanza General de Subvenciones del Ayuntamiento de Tolosa y sus Organismos Públicos.

ESKUa7437e37-e6ed-495d-8eab-15c899797b6a

Eta bi alderdiak ados jarrita, hitzarmen hau sinatu dute, eta honako klausula hauek ezarri dituzte:

KLAUSULAK

Lehena: Xedea.

Hitzarmen honen xedea da Tolosan lankidetzaz esparru egonkor bat ezartzea Tolosako Udalaren eta Tolosa&Co elkartearen artean.

Bigarrena: Diruz lagundu daitezkeen jarduerak.

Hitzarmen honen esparruan, Tolosa&Cok Turismoa, Merkataritza eta Azokak azpisailari planteatzen dizkion jarduerak lagunduko dira diruz, baldin eta Saileko arduradunak aldeko txostena egiten badu, eta, betiere, elkartearen Urteko Planaren barruan egin beharreko jardueren dagokien memoria eta diru-sarreraren eta gastuen kontu-sailak aurkeztu ondoren (beharrezko dokumentazioa aurkeztuta).

Hitzarmen honetarako, Tolosa&Cok garatzen dituen proiektuak eta jarduerak honela sailkatuko dira:

- Egitura-gastuak: elkarrekin behar bezala jarduteko behar dituen gastuak, pertsonal gastuak barne.
- Animazio- eta dinamizazio-jarduerak: Tolosako merkataritza dinamizatzeko eta sustatzeko jarduerak.
- Proiektu estrategikoak: Tolosako Hiri Ekonomia indartzeko 2016ko Plan Estrategikoan jasotakoak.

2026. urtean zehar, Tolosa&Cok ondorengo ekintzak garatzea aurreikusten du:

- Gogoko
- Braderie
- Azken beherapenak

Y de común acuerdo, ambas partes formalizan el presente convenio estableciendo las siguientes

CLÁUSULAS

Primera: Objeto.

Que el presente Convenio tiene por objeto el establecimiento de un marco estable de cooperación entre el Ayuntamiento de Tolosa y la asociación Tolosa&Co, dentro del municipio de Tolosa.

Segunda: Actividades subvencionables.

En el marco del presente Convenio, se considerarán objeto de subvención aquellas actividades que plantea Tolosa&Co al subárea de Turismo, Comercio y Ferias y que sean aprobadas mediante informe de la responsable del área, previa presentación de la memoria correspondiente a las actividades a realizar dentro del Plan Anual de la asociación y las debidas partidas de ingresos y gastos (aportando la documentación correspondiente necesaria).

A efectos de este convenio, los proyectos y actividades a desarrollar por Tolosa&Co pertenecerán a alguno de los siguientes puntos:

- Gastos estructurales: aquellos necesarios para el buen funcionamiento de la asociación, incluyendo los gastos de personal.
- Actividades de animación y dinamización: acciones dirigidas a la dinamización y promoción comercial de Tolosa.
- Proyectos estratégicos: aquellos recogidos en el Plan Estratégico de Economía Urbana de Tolosa 2016.

Concretamente, la Asociación Tolosa&Co contempla la realización de las siguientes actividades durante el año 2026:

- Gogoko
- Braderie



TOLOSAKO
UDALA

**Tolosa
&Co**

- Desfilea
- Merkatari topaketa
- Udazken kanpaina
- Gabonak
- Bestelako kolaborazio estrategikoak

Hirugarrena: Diruz lagundutako jardueren finantziazioa.

Tolosako Udalak hitzartutako jardueren finantzaketan parte hartuko du, 2026ko ekitaldirako 42.000,00 euroko dirulaguntza emanez, 1100.481.10.431.00 udal aurrekontuetako partidaren kargura; dena dela, diruz lagundutako elkarteak beste erakunde batzuen dirulaguntzak ere jaso ditzake.

Erakunde eskatzaileak aurkeztutako diruz lagundu beharreko jardueraren aurrekontua, edo ondorengo aldaketak, erreferentzia gisa erabiliko dira dirulaguntzaren zenbatekoaren azken zehaztapena egiteko, eta zenbateko hori proiektu edo jardueraren azken kostuaren ehuneko gisa kalkulatu da, baina horrek ezin izango du inolaz ere emandako zenbatekoa gainditu. Kasu horretan, Tolosako Udalak izan dezakeen gehiegizko finantzaketa kalkulatzeko, ekarpen horrek kostu osoarekiko duen proportzioa hartuko da erreferentziazat.

Dirulaguntza hau bateragarria izango da helburu bererako beste dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabide batzuekin, beste edozein administrazio edo erakunde publiko edo pribatu nazionalak, Europar Batasunak edo nazioarteko organismoek emandakoekin, hargatik eragotzi gabe beste dirulaguntza batzuk arautzen dituen araudiak horri buruz ezar dezakeena.

Balizko kofinantzaketa-kasu horiek honako baldintza hauek bete beharko dituzte:

- a) Emandako dirulaguntzaren zenbatekoak, beste dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabide

- Últimas rebajas
- Desfile
- Encuentros con las comerciantes
- Campaña de otoño
- Navidad
- Otras colaboraciones estratégicas

Tercera: Financiación de las actividades subvencionadas.

El Ayuntamiento de Tolosa participará en la financiación de las actividades conveniadas, mediante la concesión de una subvención que para el ejercicio 2026 se concreta en 42.000,00 euros, con cargo a la partida 1100.481.10.431.00 del presupuesto municipal, sin perjuicio de que la entidad subvencionada pueda recibir subvenciones de otras instituciones.

El presupuesto de la actividad a subvencionar presentado por la entidad solicitante, o sus modificaciones posteriores, servirá de referencia para la determinación final del importe de la subvención, calculándose ésta como un porcentaje del coste final del proyecto o actividad, sin que ésta pueda exceder en ningún caso del importe concedido. En este caso, el eventual exceso de financiación por parte del Ayuntamiento de Tolosa se calculará tomando como referencia la proporción que alcance dicha aportación respecto del coste total.

Esta subvención será compatible con otras subvenciones, ayudas, ingresos o recursos para la misma finalidad, procedentes de cualesquiera administraciones o entes públicos o privados nacionales, de la Unión Europea o de organismos internacionales, sin perjuicio de lo que al respecto pudiera establecer la normativa reguladora de las otras subvenciones concurrentes.

Los supuestos de cofinanciación que puedan registrarse se someten a los requisitos siguientes:

- a) En ningún caso el importe de la subvención concedida podrá superar, en concurrencia con otras

ESKUa7437e37-e6ed-495d-8eab-15c899797b6a

batzuekin batera, ezin izango du gainditu diruz lagundutako proiektu edo jardueren kostua.

Muga hori egiaztatzeko, egindako gastu osoa justifikatu beharko da, eta justifikazio-kontuak diruz lagundutako jarduera finantzatu duten beste diru-sarrera edo dirulaguntzen zerrenda xehatua jaso beharko du, zenbatekoak eta jatorria adierazita.

- b) Proiektuaren edo jardueraren kostua baino gehiago finantzatzuz gero, onuradunak itzuli egin beharko du, berandutze-interesekin batera, eta ordainketa-gutunak dagokion justifikazioari erantsiko dizkio. Soberakina erakunde emaile bakoitzari itzuliko dio, erakunde bakoitzak emandako dirulaguntzaren proportzioan.

Hala ere, baldin eta Tolosako Udala bada finantzaketa-soberakinaz ohartu dena, soberakinaren zenbateko osoa itzultzeko eskatuko du, berak emandako dirulaguntzaren mugaraino.

Dirulaguntzak bateraezinak izateak ez du eragotziko biak batera eskatzea, baina bai biak batera baliatzea.

Laugarrena: Indarraldia.

Hitzarmen honek 2026ko urtarrilaren 1etik abenduaren 31ra arte izango ditu ondorioak. Emandako dirulaguntza behar bezala erabili dela justifikatu beharko zaio horretarako eskumena duen udal sailari, Tolosako Udalaren eta haren erakunde publikoen Dirulaguntzei buruzko Ordenantza Orokorrean ezarritakoaren arabera.

subvenciones, ayudas, ingresos o recursos, el coste de los proyectos o actividades subvencionadas.

Para la comprobación de esta limitación, se habrá de justificar la totalidad del gasto realizado y la cuenta justificativa habrá de contener una relación detallada de los otros ingresos o subvenciones que hayan financiado la actividad subvencionada, con indicación de los importes y su procedencia.

- b) Si se produjera un exceso de financiación respecto del coste del proyecto o actividad, la beneficiaria deberá reintegrarlo, junto con los intereses de demora, uniendo las cartas de pago a la correspondiente justificación. El reintegro del exceso se hará a favor de las entidades concedentes en proporción a las subvenciones concedidas por cada una de ellas.

No obstante, cuando sea el Ayuntamiento de Tolosa el que advierta el exceso de financiación, exigirá el reintegro por el importe total del exceso, hasta el límite de la subvención otorgada por el mismo.

La circunstancia de que las subvenciones sean incompatibles no impedirá la solicitud de ambas, pero sí su disfrute simultáneo.

Cuarta: Periodo de vigencia.

El presente Convenio tendrá efectos desde el día 1 de enero hasta el 31 de diciembre ambos de 2026. El adecuado empleo de la subvención concedida deberá ser justificado ante el Departamento municipal competente por razón de la actividad, de acuerdo con lo establecido en la Ordenanza General de Subvenciones del Ayuntamiento de Tolosa y sus Organismos Públicos.



TOLOSAKO
UDALA

**Tolosa
&Co**

Bosgarrena: dirulaguntza jaso dezaketen gastuak.

Diruz laguntzeko moduko gastutzat joko dira, indarrean dagoen lege-esparruaren barruan eta Tolosako Udalaren eta haren erakunde publikoen Dirulaguntzei buruzko Ordenantza Orokorraren 27. artikuluko aurreikuspenen barruan, diruz lagundutako jardueraren izaerari zalantzarik gabe erantzuten diotenak, hitzarmen honetan aurreikusitako epearen barruan egiten badira, eskuratze-kostua merkatuko balioa baino handiagoa ez bada eta, berariaz kontrakoa xedatu ezean, justifikazio-epea amaitu baino lehen ordaintzen badira.

Dirulaguntza ematen den urtean edo hitzarmena onartzen den urtean sortzen diren gastuak bakarrik onartuko dira.

Diruz lagundu daitekeen gastuaren zenbatekoak kontratu publikoei buruzko legerian kontratu txikietarako ezarritako zenbatekoak gainditzen dituenean, onuradunak gutxienez hiru hornitzailearen eskaintzak eskatu beharko ditu, salbu eta, dituen ezaugarri bereziak direla-eta, merkatuan horiek egin, eman edo hornitzen dituen behar adina erakunderik ez badago, edo gastua dirulaguntzaren aurretik egin bada. Alderdi horiek behar bezala justifikatu beharko dira.

Aurkeztutako eskaintzak zuriketa-aldian aurkeztu beharko dira, edo, hala badagokio, dirulaguntzaren eskabidean. Proposamen ekonomiko onena aukeratzen ez denean, eskaintza hautatzeko erabilitako irizpideak berariaz justifikatu beharko dira memoria batean.

Gutxienez hiru hornitzaile ezberdinen hiru eskaintza aurkeztu ez badira, edo aukeratu bada, behar bezala arrazoitu gabe, proposamen ekonomikorik onena ez baizik besteren bat, organo emaileak ondasun edo zerbitzuaren peritu-tasazio bat eskatu ahal izango du, eta sortzen diren gastuak pertsona onuradunaren kontura izango dira. Kasu

Quinta: Gastos subvencionables.

Se consideran gastos subvencionables aquellos que, dentro del marco legal vigente y de las previsiones del artículo 27 de la Ordenanza General de Subvenciones del Ayuntamiento de Tolosa y sus Organismos Públicos, respondan de manera indubitada a la naturaleza de la actividad subvencionada, se realicen dentro del plazo previsto en el presente convenio, su coste de adquisición no sea superior al valor de mercado y, salvo disposición expresa en contrario, sean efectivamente pagados con anterioridad a la finalización del plazo de justificación.

Se admitirán únicamente aquellos gastos que se devenguen dentro del año de concesión de la subvención o de aprobación del convenio.

Cuando el importe del gasto subvencionable supere las cuantías establecidas en la legislación de contratos públicos para el contrato menor, la persona beneficiaria deberá solicitar como mínimo tres ofertas de diferentes proveedores, salvo que por sus especiales características no exista en el mercado suficiente número de entidades que los realicen, presten o suministren, o salvo que el gasto se hubiere realizado con anterioridad a la subvención, extremos que deberán justificarse fehacientemente.

Las ofertas presentadas deberán aportarse en la justificación, o, en su caso, en la solicitud de subvención. Se deberán justificar expresamente en una memoria los criterios empleados para la selección de la oferta cuando no recaiga en la propuesta económica más ventajosa.

En caso de que no se aportaran como mínimo tres ofertas de distintos proveedores o de que la elección hubiera recaído, sin adecuada justificación, en una que no fuera la más ventajosa económicamente, el órgano concedente podrá recabar una tasación pericial del bien o servicio, siendo a cuenta de la persona beneficiaria los gastos que se

ESKua7437e37-e6ed-495d-8eab-15c899797b6a

horretan, dirulaguntza kalkulatzeko, bi balioetan txikiena hartuko da erreferentziazat: onuradunak aitortutakoa edo tasazioaren emaitza.

Seigarrena: Dirulaguntzaren justifikazioa.

Entitate onuradunak justifikatu beharko du egin duela dirulaguntza jaso duen jarduera, baita jarduera horrek sortutako gastuak ere.

Dirulaguntza modalitate honen bidez justifikatuko da: «*justifikatzeko kontu erraztua*». Dokumentu hauek aurkeztu beharko dira:

- a) Dirulaguntza ematean ezarritako baldintzak betetzen direla justifikatzen duen jarduera-memoria, egindako jarduerak eta lortutako emaitzak adierazita.
- b) Jardueraren gastu eta inbertsioen zerrenda sailkatua, hartzekoduna, agiria, zenbatekoa eta jaulkipen- eta ordainketa-datak zehaztuta. Tolosako Udalak onartutako ereduaren bidez justifikatuko da. Dirulaguntza aurrekontu estimatu baten arabera ematen bada, gertatutako desbideratzeak adieraziko dira.

Zerrendatutako gastu eta inbertsio bakoitzerako, finantzaketa-iturria zein izan den adieraziko da (Udalak edo haren organismo publikoek emandako dirulaguntza, beste erakunde publiko batzuek emandako dirulaguntzak, onuradunak emandako finantzaketa, funtsen finantza-etekinak eta beste diru-sarrera batzuk). Finantzaketa-iturri bat baino gehiago erabili badira, horietako bakoitzak zer ehunekotan parte hartu duen adieraziko da.

Azken zenbateko horrek diruz lagundutako proiektuaren edo

ocasionen. En tal caso, la subvención se calculará tomando como referencia el menor de los dos valores: el declarado por la persona beneficiaria o el resultante de la tasación.

Sexta: Justificación de la subvención.

La entidad beneficiaria deberá justificar la realización de la actividad subvencionada, así como los gastos generados por la misma.

La justificación de la subvención se realizará mediante la modalidad de «cuenta justificativa simplificada». La documentación a presentar será la siguiente:

- a) Una memoria de actuación justificativa del cumplimiento de las condiciones impuestas en la concesión de la subvención, con indicación de las actividades realizadas y de los resultados obtenidos.
- b) Una relación clasificada de los gastos e inversiones de la actividad, con identificación del acreedor y del documento, su importe, y de las fechas de emisión y de pago, que se justificará mediante modelo aprobado por el Ayuntamiento de Tolosa. En caso de que la subvención se otorgue con arreglo a un presupuesto estimado, se indicarán las desviaciones acaecidas.

Para cada uno de los gastos e inversiones relacionados se indicará cuál ha sido la fuente de financiación (subvención concedida por el Ayuntamiento o sus organismos públicos, subvenciones concedidas por otras entidades públicas, financiación aportada por la persona beneficiaria, rendimientos financieros de los fondos y otros ingresos). Cuando se hubieran utilizado más de una fuente de financiación se indicará el porcentaje en el que hubiera participado cada una de ellas.

Este último importe deberá reflejar el coste total del proyecto o actuación subvencionado.



TOLOSAKO
UDALA

**Tolosa
&Co**

jarduketaren kostu osoa jaso beharko du.

- c) Sarreren eta gastuen balantzea. Gastuen eta sarreren zerrenda, kontzeptuen arabera laburtuta, jardueraren balantze ekonomikoan jasoko da, proposatutako ereduaren arabera.

Egiaztatu beharko da gastu eta inbertsioen zerrendako zenbatekoak eta balantzeko zenbatekoak bat datozela. Dokumentu horiek erakunde onuradunaren presidentek edo idazkariak sinatuko ditu.

- d) Fakturak eta merkataritzako trafiko juridikorako balioa edo eraginkortasun administratiboa duten gainerako agiriak, aurreko b) letran aipatzen den zerrendakoak, alegia. Horiei erantsiko zaizkie egindako ordainketak egiaztatzen dituzten agiriak.

Lehenik zuriketa aurkeztuko da, eta ondoren agirien lagin bat, organo emaileak horiek errekeritu ostean, artikulua honen amaieran zehazten den prozedura jarraituaz.

- e) Diruz lagundutako jarduera finantzatu duten beste diru-sarrera edo dirulaguntzen zehaztapen bat, zenbatekoa eta jatorria adierazita.

- f) Itzulketaren ordainketa-gutuna, aplikatu gabeko gerakinen kasuan, baita gerakinetatik eratorritako interesen kasuan ere.

Dirulaguntza ematen duen organoak gastuaren frogagirien lagin bat begiratu du, dirulaguntza behar bezala aplikatu dela egiaztatzeko. Laginean zehaztuko da egiaztatu beharreko elementuen zenbatekoa

- c) Balance de ingresos y gastos. La relación de gastos e ingresos, resumida por conceptos, se recogerá en el balance económico de la actividad según el modelo propuesto.

Se deberá acreditar que coinciden los importes de la relación de gastos e inversiones y el del balance. Además, estarán firmados por la Presidenta o Secretaria de la entidad beneficiaria.

- d) Las facturas y los restantes documentos de valor probatorio equivalente en el tráfico jurídico mercantil o con eficacia administrativa, incorporados en la relación a que se hace referencia en la letra b) anterior, a los que se unirá la documentación acreditativa de los pagos realizados.

Primero se presentará la justificación y después una muestra de los documentos, previo requerimiento de los mismos por el órgano concedente, siguiendo el procedimiento que se detalla al final de este artículo.

- e) Un detalle de otros ingresos o subvenciones que hayan financiado la actividad subvencionada con indicación del importe y su procedencia.

- f) Carta de pago del reintegro en el supuesto de remanentes no aplicados así como de los intereses derivados de los mismos.

El órgano concedente comprobará una muestra de justificantes de gasto que permita obtener evidencia razonable sobre la adecuada aplicación de la subvención. La muestra determinará el volumen de elementos a comprobar

ESK0a7437e37-e6ed-495d-8eab-15c899797b6a



TOLOSAKO
UDALA

**Tolosa
&Co**

zein den, ondoren adierazten diren mugak errespetatuz:

1. Emandako dirulaguntzaren zenbatekoaren 100eko 25 gaintitzen duten egiaztagiri guztiak begiratuko dira.
2. Gainerako egiaztagirietatik, gutxienez guztizkoaren elementu-kopuruarekiko ehuneko hau osatzen duten elementuen lagin bat egiaztatuko da:

- Egiaztagiriak hamar edo hamar baino gutxiago badira: 100eko 100.
- Egiaztagiriak hamar baino gehiago eta hogeit hamar edo hogeit hamar baino gutxiago badira: 100eko 70.
- Egiaztagiriak hogeit baino gehiago eta berrogeit hamar edo berrogeit hamar baino gutxiago badira: 100eko 40.
- Egiaztagiriak berrogeit hamar baino gehiago eta ehun edo ehun baino gutxiago badira: 100eko 30.
- Egiaztagiriak ehun baino gehiago badira: 100eko 20.

Gastu-frogagiriaren lagina osatzen duten gastuak behar bezala justifikatzeko, fakturak eta merkataritzako trafiko juridikorako balioa edo eraginkortasun administratiboa duten gainerako agiriak aurkeztu beharko dira eta horiek aurreko 2.b) letran aipatzen den zerrendan sartuta egon beharko dute. Agiri horiei erantsiko zaie gastua ordaindu izanaren dokumentazioa.

Jatorrizko agiri horiek aurkeztuko dira zerrenda zenbakituan emandako hurrenkera-zenbakiaren

respetando los límites que a continuación se indican:

1. Se comprobarán todos los justificantes que superen individualmente el 25 por 100 del importe de la subvención concedida.
2. Del resto de los justificantes se comprobará una muestra de elementos que al menos suponga el siguiente porcentaje respecto del número de elementos del total:

- Si el número de justificantes fuera inferior o igual a diez: 100 por 100.
- Si el número de justificantes fuera superior a diez e inferior o igual a veinte: 70 por 100.
- Si el número de justificantes fuera superior a veinte e inferior o igual a cincuenta: 40 por 100.
- Si el número de justificantes fuera superior a cincuenta e inferior o igual a cien: 30 por 100.
- Si el número de justificantes fuera superior a 100: 20 por 100.

Para la adecuada justificación de los gastos que constituyen la muestra de justificantes de gasto, deberán presentarse facturas y demás documentos de valor o eficacia administrativa para el tráfico jurídico mercantil, que deberán estar incluidos en la relación a que se refiere la letra 2.b) anterior. A dicha documentación se acompañará la documentación del pago del gasto.

Estos documentos originales se presentarán ordenados respectivamente por el número

ESKUa7437e37-e6ed-495d-8eab-15c899797b6a



TOLOSAKO
UDALA

**Tolosa
&Co**

arabera, hurrenez hurren
ordenatuta.

de orden asignado en la relación
numerada.

Zazpigarrena: dirulaguntzen justifikazioa aurkezteko epea.

Dirulaguntza justifikatzeko epea bi hilabetekoa izango da, jarduera gauzatzeko epea amaitzen denetik zenbatzen hasita, eta, nolanahi ere, gehienez 2027ko otsailaren 28rako aurkeztu beharko da.

Séptima: Plazo de presentación de la justificación de las subvenciones.

El plazo para la justificación de la subvención será de dos meses desde la finalización del plazo para la realización de la actividad y, en todo caso, deberá presentarse como máximo para el 28 de febrero de 2027.

Zortzigarrena: Ordaintzeko prozedura.

Dirulaguntza bi zatitan ordainduko da: lehena hitzarmena sinatu ondoren, Ogasunarekiko eta Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak egunean dituela ziurtatzen duten agiriak aurkeztutakoan: honen zenbatekoa diru laguntzaren %60a izango da, eta gainontzeko %40a, berriz, aurkeztutako justifikazioa onartzen duen organo eskudunaren erabakiaren jakinarazpenarekin batera.

Octava: Procedimiento de pago.

El abono de la subvención se realizará en dos pagos, el primero tras la firma del convenio, una vez presentada la documentación acreditativa de hallarse al corriente de sus obligaciones con Hacienda y con la Seguridad Social, por un importe del 60% y el 40% restante, junto con la notificación del acuerdo del órgano competente por el que se aprueba la justificación presentada.

Dirulaguntza berriak jaso ahal izateko, ezinbestekoa izango da Tolosako Udalak aurretik emandako dirulaguntzen egiaztagiri guztiak aurkeztea.

Será requisito imprescindible haber aportado toda la documentación justificativa de subvenciones anteriores otorgadas por el Ayuntamiento de Tolosa, para poder optar a la concesión de nuevas subvenciones.

Ordainketak egin eta hurrengo hilabete naturala amaitu baino lehen jakinaraziko zaizkio dirulaguntzen Datu Base Nazionalari.

Los pagos serán comunicados a la BDNS antes de que finalice el mes natural siguiente al de su realización.

Organo eskudunak erabakitzen badu onuradunak aurrerakin gisa jasotako zenbatekoa, osorik edo zati batean, itzuli behar duela, itzuli beharreko zenbatekoari dagokion berandutze-interesa erantsiko zaio. Horretarako, Tolosako Udaleko Dirulaguntzen Ordenantza orokorreko 41. Artikuluan aurreikusitakoa aplikatuko da.

Cuando el órgano competente acuerde la devolución total o parcial del importe recibido en concepto de anticipo por parte del beneficiario, se incrementará el importe a reintegrar con el interés de demora correspondiente. A tal efecto, será de aplicación el artículo 41 de la Ordenanza General de Subvenciones del Ayuntamiento de Tolosa.

Bederatzigarrena: Diruz lagundutako jardueraren publizitatea.

Erakunde onuradunak diruz lagundutako jardueren finantzaketaren izaera publikoa hedatzeko neurriak hartu beharko ditu, diruz lagundutako helbururako egokiak direnak, bai formari dagokionez, bai iraupenari dagokionez:

Novena: Publicidad de la actividad subvencionada.

La entidad beneficiaria deberá adoptar medidas de difusión del carácter público de la financiación de las actividades subvencionadas, adecuadas al objeto subvencionado, tanto en su forma como en su

ESKUA7437e37-e6ed-495d-8eab-15c899797b6a



TOLOSAKO
UDALA

**Tolosa
&Co**

esaterako, karteletan, plaka oroigarrietan, inprimatutako materialetan, baliabide elektroniko edo ikus-entzunezkoetan Tolosako Udalaren irudi instituzionala edo beraren finantzaketa publikoari buruzko legendak sartzea, edo hedabideetan aipamenak egitea, beste finantzaketa-iturri batzuei emandako garrantzia berarekin.

Tolosako Udalak beharrezkotzat eta interesgarritzat jotzen dituen gizarte-, hezkuntza-, kultura- eta jolas-ekitaldietan parte hartzeko konpromisoa hartzen du diruz lagundutako erakundeak.

Hamargarrena: Euskararen erabilpena.

Erakunde onuradunak euskaraz edo bi hizkuntza ofizialetan idatzi eta ezagutarazi beharko ditu –euskarari lehentasuna emanda– diruz lagundutako jardueran argitaratzen dituen idatzi, iragarki, ohar eta gainerako komunikazioak, eta publizitatearekin ere, ahozkoa zein idatzia izan, berdin jokatu beharko du. Halaber, ekitaldi jakinetan megafoniaz igorritako mezuak euskaraz edo bi hizkuntza ofizialetan eman beharko dira. Betebehar hori bete izana diruz lagundutako jarduera egin dela justifikatzerakoan egiaztatu beharko da.

Hizkuntza-normalizaziorako helburuei jarraikiz, euskara sustatzeko irizpideak jarriko ditu Udalak, eta haiek bete beharko ditu onuradunak diruz lagundutako jarduera gauzatzean. Irizpideak zehazteko oinarri hartuko diren printzipioak azaroaren 19ko 179/2019 Dekretuan zehaztutakoak dira, Euskadiko toki-erakundeetan hizkuntza ofizialen erabilera instituzionala eta administratiboari buruzkoan, hain zuzen.

Hamaikagarrena: Genero berdintasuna.

Honako hauek ezin izango dute parte hartu, eta pertsona edo entitate onuradun izaeratik kanpo geratuko dira:

duración, como la inclusión de la imagen institucional del Ayuntamiento de Tolosa o leyendas relativas a su financiación pública en carteles, placas conmemorativas, materiales impresos, medios electrónicos o audiovisuales, o la realización de menciones en medios de comunicación, y con análoga relevancia a la empleada respecto de otras fuentes de financiación.

La entidad subvencionada se compromete a asistir y participar en los distintos actos sociales, educativos, culturales y lúdicos que sean considerados necesarios y de interés por el Ayuntamiento de Tolosa.

Décima: Uso del euskera.

La entidad beneficiaria deberá redactar y dar a conocer en euskera o en las dos lenguas oficiales, con preferencia al euskera, los escritos, anuncios, notas y demás comunicaciones que publique en la actividad subvencionada, así como la publicidad, tanto oral como escrita. Asimismo, los mensajes emitidos por megafonía en actos concretos deberán transmitirse en euskera o en las dos lenguas oficiales. El cumplimiento de esta obligación deberá acreditarse en el momento de la justificación de la realización de la actividad subvencionada.

En atención a los objetivos de normalización lingüística, el Ayuntamiento establecerá y deberá cumplir los criterios de promoción del euskera en la ejecución de la actividad subvencionada por la persona beneficiaria. Los principios que servirán de base para la determinación de los criterios son los establecidos en el Decreto 179/2019, de 19 de noviembre, de normalización del uso institucional y administrativo de las lenguas oficiales en las entidades locales de Euskadi.

Undécima: Igualdad de género.

No podrán participar y estarán excluidas de la condición de personas o entidades beneficiarias:

ESKUa7437e37-e6ed-495d-8eab-15c899797b6a



TOLOSAKO
UDALA

**Tolosa
&Co**

1. Xedeak edo helburuak, kideak onartzeko edo sartzeko sistema, funtzionamendua, ibilbidea, jarduna, antolamendua edo estatutuak direla-eta, emakumeen eta gizonen berdintasun-printzipioa urratzen duten pertsona fisikoak edo juridikoak.
2. Administrazio-, lan- edo zigor-bidez irmoki zehatuak izan diren pertsona fisikoak eta juridikoak, sexu-arrazoiak direla eta berdintasunaren eta diskriminaziorik ezaren eskubidea urratu izanagatik.
3. Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko martxoaren 16ko 1/2023 Legegintza Dekretuak ezarritako betekizunak betetzen ez dituzten entitateak edo enpresak.
4. Ez dira diruz lagunduko, ezta ere, sexuagatiko edo diskriminazio multipleko faktoreengatiko bereizkeria eragiten duten jarduerak, emakume edo emakume-taldeenak, baldin eta diskriminazio egoerak eragin ditzaketen beste faktore batzuk badaude, hala nola arraza, kolorea, jatorri etnikoa, hizkuntza, erlijioa, politikari edo bestelako gaiei buruzko iritziak, gutxiengo nazional bateko kide izatea, ondarea, jaioterria, desgaitasuna, adina, sexu-orientazioa, genero-identitatea, genero adierazpena, migrazio-prozesua, errefuxiatu-estatusa, kultura, landa-jatorria, gizarte-bazterketako egoera, seropositibotasun-egoera, guraso bakarreko familia, familia-konfigurazioa edo beste edozein baldintza edo inguruabar pertsonal, sozial edo administratibo.

Debekua xedapen hauetan ezarritakoarekin bat etorrita ezartzen da: Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabe

1. Las personas físicas o jurídicas cuyos fines u objetivos, sistema de admisión o acceso, funcionamiento, trayectoria, actuación, organización o estatutos vulneren el principio de igualdad de mujeres y hombres.
2. Las personas físicas y jurídicas que hayan sido sancionadas administrativa, laboralmente o penalmente de forma firme por haber vulnerado el derecho a la igualdad y a la no discriminación por razón de sexo.
3. Entidades o empresas que no cumplan los requisitos establecidos en el Decreto Legislativo 1/2023, de 16 de marzo, para la igualdad de mujeres y hombres y la no violencia machista contra las mujeres.
4. Tampoco serán objeto de subvención las actividades que supongan discriminación por razón de sexo o factores de discriminación múltiple, de mujeres o grupos de mujeres, cuando concurren otros factores que puedan dar lugar a situaciones de discriminación, tales como la raza, el color, el origen étnico, la lengua, la religión, la opinión política o de otra índole, la pertenencia a una minoría nacional, el patrimonio, el lugar de nacimiento, la discapacidad, la edad, la orientación sexual, la identidad de género, la expresión de género, el proceso migratorio, el estatus de refugiado, la cultura, el origen rural, la situación de exclusión social, la situación de seropositividad, la familia monoparental, la configuración familiar o cualquier otra condición o circunstancia personal, social o administrativa.

La prohibición se establece de conformidad con lo establecido en los artículos 3 y 28 del Decreto Legislativo 1/2023, de 16 de marzo, para la Igualdad de Mujeres y Hombres y

ESKUa7437e37-e6ed-495d-8eab-15c899797b6a



TOLOSAKO
UDALA

**Tolosa
&Co**

bizitzeko martxoaren 16ko 1/2023 Legegintza Dekretuko 3. eta 28. artikuluan; Dirulaguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorraren 13.3 artikuluan; 1/1997 Legegintzako Dekretuaren 50.5 artikuluan, eta Elkarteko Eskubidea Arautzeko martxoaren 22ko 1/2002 Lege Organikoaren 4. artikuluan.

Hamabigarrena: Jarraipen batzordea.

Hitzarmen honen testuinguruan, bi aldeek adostu dute Hitzarmen honen jarraipena egiteko batzorde bat eratzea. Batzorde horren funtzioak hauek izango dira: hitzarmena ongi betetzen dela zaintzea, sor daitezkeen zalantzak argituz; dirulaguntza jaso duten jarduera guztien memoria eta ustiapen-kontua adostea; hitzarmena betetzen ote den eta zein neurritan betetzen den aztertzea; eta bi aldeen interesekoak izan daitezkeen lankidetzak bide berriak proposatzea.

Batzorde hori honakoek osatuko dute:

- Tolosa&Co elkarteko teknikari batek.
- Tolosako Udaleko Garapen Ekonomikoa, Enplegua, Turismoa, Merkataritza eta Azokak Saileko zerbitzuburuak.

Tolosako Udalak egoki irizten dituen ikuskapen eta ziurtapenak egiteko ahalmena du, diruz lagundutako elkarteak hartutako konpromisoak betetzen dituela egiaztatzeko helburuarekin.

Hamahirugarrena: Iraungitzea.

Hitzarmen hau iraungiko da Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren 40/2015 Legearen 51. artikuluan zehaztutako kasuetan.

Hamalagarrena: Lan eta zerga legeria.

Diruz lagundutako erakundeak, bere jardueran diharduela, indarrean dagoen legerian ezarritakoa bete beharko du, batez ere arlo fiskalari, lan-harremanei, Gizarte Segurantzari

contra la Violencia Machista; 13.3 de la Ley 38/2003, General de Subvenciones; 50.5 del Decreto Legislativo 1/1997, y 4 de la Ley Orgánica 1/2002, de 22 de marzo, Reguladora del Derecho de Asociación.

Duodécima: Comisión de seguimiento.

En el marco de este convenio, las partes convienen en constituir una comisión de seguimiento del presente Convenio, cuyas funciones serán velar por el cumplimiento del Convenio, resolviendo las dudas que pudieran surgir, acordar la memoria y cuenta de explotación de la totalidad de las actividades subvencionadas y analizar el cumplimiento y grado de ejecución del convenio y proponer nuevas posibilidades de colaboración en temas de interés común.

La Comisión estará constituida por las siguientes personas:

- Una técnica de Tolosa&Co.
- La responsable del departamento de Desarrollo Económico, Empleo, Turismo, Comercio y Ferias del Ayuntamiento de Tolosa.

El Ayuntamiento de Tolosa se reserva la facultad de realizar cuantas inspecciones y comprobaciones estime oportunas en orden a verificar el cumplimiento de los compromisos asumidos por la entidad subvencionada.

Decimotercera: Extinción.

El presente Convenio se extinguirá, en los casos previstos en el artículo 51 de la Ley 40/2015, de Régimen Jurídico del Sector Público.

Decimocuarta: Legislación laboral y fiscal.

La entidad subvencionada en el ejercicio de su actividad, deberá dar cumplimiento a lo establecido en la legislación vigente, especialmente en lo que se refiere al ámbito

ESKUa7437e37-e6ed-495d-8eab-15c899797b6a



TOLOSAKO
UDALA

**Tolosa
&Co**

edo horren aplikaziotik ondorioztatzen den beste edozein arlori dagokienez.

Hamabosgarrena: Izaera administratiboa.

Hitzarmen honek izaera administratiboa du, eta, ondorioz, bere klausulez gain, aplikagarri den legeria aplikatuko zaio.

Hamaseigarrena: Erantzukizunpeko adierazpena.

Tolosako Udalaren eta bere Erakunde Publikoen Dirulaguntzei buruzko Ordenantza Orokorren 10.11 artikuluan xedatutakoaren arabera, Dirulaguntzei buruzko Lege Orokorren 13.2 artikuluan ezarritako onuradun izateko debekurik ez dagoela egiaztatzeko, erantzukizunpeko adierazpena egin beharko da, notario edo funtzionario publiko baten aurrean.

Hamazazpigarrena: Gainerako legeria.

Hitzarmen honetan arautzen ez denari dagokionez, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legean, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrean eta hura garatzen duen Erregelamendua onartzen duen uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuan eta Tolosako Udalaren eta haren erakunde publikoen dirulaguntzei buruzko Ordenantza Orokorrean xedatutakoa beteko da.

Hemezortzigarrena: Izaera pertsonaleko datuak.

Datu pertsonalak arautzen dituen araudian xedatutakoa betez, bi aldeek konpromisoa hartzen dute indarrean dagoen legedian xedatutakoa betetzeko, hala dagokionean.

Hemeretzigarrena: Baimentzea.

Entitate onuradunak berariaz ematen dio baimena Tolosako Udalari edozein unetan edozein administrazio edo erakunde publikotatik hitzarmen honen xede den dirulaguntza lortzeko eskatzen diren baldintzak betetzen dituela egiaztatzeko behar diren datuak zuzenean jasotzeko.

fiscal, relaciones laborales, Seguridad Social o cualesquiera que resulten de su aplicación.

Decimoquinta: Naturaleza administrativa.

El presente Convenio tiene naturaleza administrativa y se rige en consecuencia, además de por sus propias cláusulas, por la legislación aplicable en su caso.

Decimosexta: Declaración responsable.

De conformidad con lo dispuesto en el artículo 10.11 de la Ordenanza General de Subvenciones del Ayuntamiento de Tolosa y sus Organismos Públicos, la acreditación de no incurrir en las prohibiciones para ser persona beneficiaria que se establecen en el artículo 13.2 de la LGS, se realizará mediante declaración responsable ante notario o funcionaria o funcionario público.

Decimoséptima: Legislación supletoria.

En lo no regulado en el presente convenio, se estará a lo dispuesto en la Ley 40/2015, de 1 de octubre, de Régimen Jurídico del Sector Público; en la Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones y en el Real Decreto 887/2006, de 21 de julio, por el que se aprueba el Reglamento que la desarrolla y en la Ordenanza General de Subvenciones del Ayuntamiento de Tolosa y sus organismos públicos.

Decimoctava: Datos de carácter personal.

En cumplimiento de lo establecido en la normativa reguladora de los datos de carácter personal, ambas partes se comprometen a cumplir, en los términos que sean de aplicación, lo establecido en la legislación vigente.

Decimonovena: Autorización.

La entidad beneficiaria autoriza expresamente al Ayuntamiento de Tolosa a que recabe, en cualquier momento, directamente de cualquier Administración u Organismo Público los datos necesarios para acreditar el cumplimiento de las condiciones requeridas para la obtención de la subvención objeto del presente convenio.

ESKua7437e37-e6ed-495d-8eab-15c899797b6a

Hogeigarrena: Gardentasun Ataria.

Hitzarmen honen testua Gardentasun Atarian eta udaletxeko iragarki-taulan argitaratuko da.

Eta ados daudela adierazteko, hitzarmenaren hiru ale izenpetzen dituzte bi aldeek, nire aurrean eta goiburuan aipatutako toki eta egunean; Idazkari naizen honek fede ematen dut.

ZINEGOTZI DELEGATUA
Aitor Aguirresarobe Murgui

Vigésima: Portal de la Transparencia.

Se publicará el texto del presente convenio en el portal de la Transparencia y en el tablón de anuncios del Ayuntamiento.

Y en prueba de conformidad, ambas partes firman y ratifican el presente convenio, por triplicado ejemplar, en el lugar y fecha indicados en el encabezamiento; ante mí, la secretaria, que doy fe.

TOLOSA&CO ELKARTEKO
LEHENDAKARIA
Jaione Ormazabal Azpiroz

Nire aurrean,

IDAZKARIA
Sara Berasategui Fuertes

